



Getariako Udala



Getariako erosketa bonuen programan parte hartzeko baldintzak

Getariako udalak erosketa-bonuen programa diseinatu du udalerrian, COVID-19K eragindako kalteak arintzeko; horretarako, 10.000,00€ bideratuko ditu 20,00€ko bonoetan, programa horrekin bat egiten duten saltokietan erosteko. Bonuak saltoki bakoitzaren izendunak izango dira, eta bezeroak 15,00€ ordainduko ditu beste 5,00€ udalak ipiniko ditu.

Bono hauek Turismo bulegoan eskuratu ahal izango dira.

1. Getariako erosketa bonuen programan parte hartzeko aukera izango dute bonuak hartu eta ordainketa modu gisa onartzen dituzten Getariako establezimenduek. Hauek pertsona fisiko zein juridikoak izan daitezke, baina ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:
 - a. Jardueraren helburu nagusia kontsumitzaileari kontsumo produktua eta ondasunak zuzenean saltzea izatea.
 - b. Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren ondorioz itxita egotea edo, irekita egon arren, fakturazioa % 75 murriztea.
 - c. Zerga betebeharretan, bai Gizarte Segurantzarekin eta Ogasunarekin eguneratuak egotea eta, hala badagokio, dirulaguntzak itzultzeko betebeharretan.
 - d. Getariako Udalarekin zorrik ez izatea.
2. Alde horretatik, beste betebeharrak batzuk kontuan izan beharko balira, Udalak edozein unetan eskatu ahal izango du gutxieneko eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko edozein agiri.

Horiek betetzen ez dituzten entitateek aurkeztutako eskaerak ez dira kontuan hartuko eta ez dira onartuko.

Programan parte hartzeko epea eta prozedura.

Getariako Erosketa bonuen programan parte hartu nahi duten saltokiek eskaera urriak 13tik 16ra arte aurkeztu dezakete.

Interesa izan dezaketen pertsonak parte hartzeko eskaera eta baldintza orriak Getariako Udaleko webgunean egongo dira, www.getaria.eus eta baita Getariako udaleko bulegoetan ere.



Getariako Udala



Parte hartuko duten saltokien betebeharrak.

Getarian erosteko bonuen programan parte hartzeko eskaera orria aurkeztu duten saltokien betebeharrak hauek izango dira:

- a. Atxikitako dendak konpromisoa hartzen du publizitateko materialak saltokian jaso eta ikusteko moduan jartzeko.
- b. Hobaritutako zenbatekoaren itzulketa eskatzeko, dendak salmentaren frogagiriak; hau da, erosketa bonua eta faktura turismo bulegoan utzi beharko ditu.
- c. Erosketa bonuen erabiltzaileei ez zaie itzuliko erosketaren eta erosketa bonuaren balioaren arteko diferentzia.
- d. Erosketa bonuen bidez erositako ondasunen itzulketa politikari dagokionez, saltoki bakoitzak zehaztuko du noiz eta nola egin itzulketa. Halere, erosketa bonuarekin eskuratutako produktua itzultzen bada, ez da eskudirutan itzuliko.
- e. Udalak, parte hartutako establezimenduekin harremanetan jarri ahal izango da, funtzionamendua egiaztatzeko eta oro har prozesuaren eta kanpainaren inguruan zer iritzi duten egiaztatzeko.

Erosketa bonuen banaketa.

1. Udalak salgai ipiniko ditu Turismo Bulegoan herritarrei, eta kanpaina honi atxikitako establezimenduan erabiliko dira. 20 €-ko bonuak banatuko dira, 5€-ko bonutan zatitu daitezkeenak. Erosketa bonu hauek kanpaina barruan lau erosketa ekitalditan erabili daitezke.
2. Kanpaina honi atxikitako establezimendu bakoitzak bere gain hartuko du onartutako erosketa bonuen kopurua kontrolatzeko ardura.
3. Bonoak ez dira frakzionatuko, gutxienez 5,00€ gastatu behar da.
4. EROSKETA bonoak dira eta ez KONTSUMO bonoak.

Dirulaguntzen indarraldia eta kanpainaren egutegia

1. Getariako erosketa bonuak, ordainketa modu gisa, Getariako udalerrian bakarrik erabiliko dira.
2. Erosketa bonuak Azaroaren 1etik abenduaren 15er bitartean erabili ahal izango dituzte soilik programari atxikitako establezimenduetan. Epe hori igarota, ez da erosketa bonurik onartuko.



Getariako Udala



3. Programari atxikitako establezimenduek bukaeran egindako eragiketei dagozkien erosketa bonuen ordainketa jasoko dute. Horretarako, Turismo Bulegoan aurkeztu beharko dituzte fakturarekin edo erosketa etiketekin batera.

Programan parte hartu duten saltokietan jaso dituzten erosketa bonuak trukatzeko prozedura.

Trukea egiteko, jasotako erosketa bonuak eta erosketa etiketa eraman beharko dira turismo bulegora. Trukea bukaeran egingo da. Hobariaren xede den zenbatekoa dokumentazioa egiaztatu ondoren ordainduko da, jaso eta hamabost eguneko epean eta banku transferentzia bidez.

Ikuskatzea eta ez-betetzeak.

Getariako Udalak, programaren arduradun den heinean, egokitzat jotzen dituen egiaztapen, ikuskapen eta gainerako kontrol guztiak egin ahal izango ditu ziurtatzeko baliabide publikoak ondo erabiliko direla eta laguntza programa hau modu egokian garatu eta aplikatuko dela.

Saltoki txikiek ez-betetzeren bat eginez gero, Getariako Udalak erosketa bonuen programara duten atxikipena bertan behera utzi dezake, eta ez-betetzearen ondoriozko neurriak aplikatu.

Atxikitako establezimenduak behartuta daude Getariako Udalak laguntzen zertarakoa fiskalizatzeko eskatzen dien informazio guztia ematera.